

Aramaioko etxe-atariak, balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa

OINARRIAK

1. DEIALDIA

Aramaioko Udalak etxe-atariak, balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du.

2. LEHIAKETAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da balioan jartzea herriko atariak, balkoiak eta leihoak zaindu edota apaintzeko ohitura. Eta herriaren itxurari egiten dizkion onurak ere balioan jarri nahi dira. Hori guztia ingurumena zainduz egitea balioetsiko da.

Atari, balkoi eta leiho apainduen atzean herritar bakoitzak auzo, kale eta fatxaden estetika hobetzeko egiten duen ekarpena dago eta honek, herritar - herri ingurune erlazioa hobetzen du, aldi berean, bizilagunek eginiko ekarpen artistikoaz denok gozatuz.

3. PARTAIDEAK

Atari, balkoi edota leihoa duten Aramaioko edozein etxebizitzaren jabe edo errentariak parte hartu ahal izango dute; betiere, apaintzea elementuak oinezkoentzat edo azpiegitura berarentzat arriskutsuak ez badira.

Atari, balkoi eta leihoek gutxienez ekainaren 1etik 23ra egon beharko dute apainduta (biak barne). Partehartzaileek, tarte honetan, baimena ematen diote Udalari lehiaketara aurkezten den atari, balkoi eta leihoei argazkiak ateratzeko.

4. IZEN EMATEA

Lehiaketan izena emateko, parte hartzailearen izen- abizenak eta atari, balkoia edota leihoa identifikatzeko helbidea erraztu behar da, modu honetan:

- Udaletxera bertaratuta edo telefonoz (945445016). Astelehenetik ostiralera: 09:00-14:00etara

Parte hartzen duen atari/balkoi/leiho bakoitzari zenbaki bat emango zaio, eta ikusgai izan beharko du lehiaketa amaitu bitartean, dagokion atari/balkoi/leihoan.

Izena emateko azken eguna: ekainak 18.

5. LEHIAKETAREN GARAPENA

Atari/balkoi/leihoak apaintzeko elementuak norberak aukeratu eta kokatu beharko ditu. Betiere, pasabideak, espaloiak eta beste bizilagunen etxebizitzetako inguruak errespetatu beharko dira. Eskegita dagoen edozein elementu ondo lotuta egon beharko da, haizeagatik istripu-arriskuak ekiditeko.

Edozein modutan, istripurik gertatuz gero, etxebizitza horren jabea izango da kalteen arduraduna.

6. EPAIMAHAIA

Kultura Batzordeak izendatuko du epaimahaia, eta horren osaketa sari-banaketaren egunean jakinaraziko da. Epaimahaiaren iritziz behar besteko mailarik ez balego, lehiaketa irabazlerik gabe utz daiteke.

Epaimahaiak erabakitakoa apelaezina izango da, eta partehartzaileek onartu beharko dute oinarri hauek eta baita erabakia ere.

7. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Lehiaketa honetan ondorengo irizpideak balioetsiko dira:

- Originaltasuna.
- Apaintetaren kalitatea.
- Erabili diren loreen iraunkortasuna
- Armonia eta diseinua.
- Erabilitako materiala. Material birziklatua erabiltzea baloratuko da.

8. SARIAK

Sari banaketa ekaina bukaeran izango da.

Bi kategoria egongo dira, honako sariekin:

- Leiho eta balkoien kategoria: sari bakarra: 200 €
- Atarien kategoria: sari bakarra: 200 €

Lehiaketan parte hartu dutenen artean 50 €ko saria zozketatuko da (irabazleak izan ezik)

9. KONPROMEZUA

Lehiaketa honetan parte hartzean, oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzen da (apelaezina izango da). Era berean, antolatzaileei nahi beste argazki egiteko baimena ematen zaie, hauen eskubide guztiak gordez eta edozein komunikabidetan argitaratzea baimenduz. Betiere, argazkiak guneko publiko eta komunitatetik aterako dira.